



ENEGUR, energia-kontsumo txikiko modulu berriztagarri berria sortu du USURBILGO LANBIDE ESKOLAK

Bero-premia txikiko modulu prefabrikatu bat da, PASSIVHAUS irizpideen arabera eraiki dena: isolamendu ona, infiltrazioak ekiditen dituena, eta PUTZU KANADAR bati loturiko aireztapen-mekanikoa.

Bero-ekarpena eguzki-energiarekin eta aerotermiarekin osatuko da, ekarpen elektrikoa, berriz, mikro-sarearekin. Sare horrek bi atzipen-eremu fotovoltaiko dauzka, 10 kWp-koak, eta 3 kWp-ko haize-turbina bat.

Eraikin biziduna izatea da helburua, SAIKUNTZA BANKU gisa erabiltzeko. Horrela, enpresek teknologia berriak probatu ahal izango dituzte, eta eraikingintza eraginkorraren, instalazio elektrikoen eta berokuntza-instalazioen arloko produktuen funtzionamendua erakutsi gizarteari.

Eusko Jaurlaritzaren babesari eta Tknikaren nahiz egitasmo honen alde egin zuten 17 enpresen lankidetzari esker gauzatu ahal izan da proiektua. 150 parte-hartzaile inguru izan ditu proiektuak –zentroko 90 ikasle, Txileko 40 ikasle eta 20 irakasle –, eta uztailean eman zituen lehen urratsak, muntatzeari udazkenean ekin arren.

Gaur, hilak 20, egin da jendaurreko aurkezpena ikastetxeko arduradunen eta enpresa partaideen ordezkarien eskutik

Informazio gehiago: www.lhusurbil.eus

Enegur eraikitzeko prozesua jasota dagoen bideoa (time-lapse eran) eskura dago esteka honetan: <https://youtu.be/tZVMss51fl>